



Gure ikastetxeetako elikadura hobetzearen aldeko Adierazpena

Gure eskualdean diren ikastetxe publikoetako eskola jantokien egoera aztertuta, ikusi dugu egungo jantoki-ereduak ez dituela betetzen eskola-komunitatearen beharrak. Izan, zerbitzu osagarri bat da, eta ez zaio merezi duen balio eta garrantzirik ematen. Elikadura industrialaren sisteman oinarrituta dago, elikadura osasungarri, jasangarri eta pedagogikoa ardatz dituen eredu batean oinarritu beharrean.

Kontuan izanik lehen sektoreak garrantzi handia duen eskualde batean bizi garela, uste dugu pausuak eman daitezkeela beste elikadura-eredu baterantz, hots, ingurumenarekin orekan izango den baterantz.

2017-2018 ikasturtetik, behean sinatzen duten Enkarterri-Meatzaldea eskualdeko ikastetxeek gaia eztabaidatzen aritu gara, eta bat etorri gara gure ikastetxeetarako nahi dugun jantoki-ereduari buruz, zeina honako puntu hauetan laburbiltzen baita:

1. ALDERDI OROKORRAK

Ikastetxe bakoitzaren egoera ezberdina izanik ere, ikusi dugu antzeko helburuak ditugula. Hori ikusita, indarrak batzea erabaki dugu.

Izan ere, eskualdeko ikastetxeen artean borondatea dago elkarri laguntzeko.

2. HELBURUAK

Jantoki osasungarri, hezitzaile eta jasangarria, hurbilean hazten diren elikagaietan oinarritua dena, lortzeko nahiak bultzatuta, eta tokiko, eskualdeko nahiz probintziako ekonomia garatze aldera, kudeaketa-sistema berriek bete beharko dituzten honako helburu hauek ezarri ditugu:

A. Haurrek eskubidea dute elikadura osasuntsu eta kalitatezkoa izateko.

Gure seme-alabek eskoletan BERTAKO elikagaiak jan ditzatela eskatzen dugu, SASOIKOAK eta KALITATEZKOAK direnak, eta jantokiko otorduetan elikagai ekologikoak jartzeko urratsak ere eman daitezela.

B. Jantoki hezitzailea.

Ikastetxearen curriculumean txertaturik den eta jantokia ere barne hartuko duen espazio pedagogiko bat eskatzen dugu, besteak beste sasoiko produktuak zein diren, produktuak nondik datozen, zein ezaugarri dituzten eta abarri buruz azaltzea ahalbidetuko duena.

Ohitura osasuntsuak eta gizabidezkoak nahiz lankidetzeta, errespetua eta ongizatea bultzatuko dituen espazioa, hain zuzen ere; erakargarria eta atsegina izango dena. Eta, halaber, sukaldeko eta jantokiko langileen lan-baldintzei eta prestakuntzari eutsi eta, areago, hobetuko dituen.

C. Lehen sektorea berrindartzea eta eskualdearen iraunkortasuna.

Tokiko ekonomiaren alde egiten dugu. Lehen sektoreak eta hezkuntza-komunitateak elkarren beharra dugu, eta beraz, baserritarrek bizi-baldintza duinak izan ditzatela nahi dugu. Jantoki-eredu iraunkorragoa eta ekologikoagoa lortu nahi dugu.

3. ERAKUNDEEI DEIA

Helburu horiek lortzeko, dei bat egiten diegu erakundeei. Ezinbestekoa da euren laguntza eta inplikazioa. Guztion erantzukizuna da gure seme-alabek modu osasuntsuan jateko aukera izatea, eskualdearen iraunkortasuna bermatzea eta bertako ekonomia sustatzea.

Horregatik guztiagatik, hau eskatzen dugu:

- a) **Eusko Jaurlaritzak ikastetxe publikoei buruzko indarreko araudia alda dezala**
Jantoki-zerbitzua, gaur egun, catering enpresen bidez egiten da. Hori dela eta, eskatzen dugu ikastetxeei zer jantoki-eredu garatu nahi duten ERABAKITZEKO ESKUBIDEA aitortzea, administrazioak jantokien gainean duen erantzukizunari

bizkar eman gabe.

b) Lehen sektorea bultzatuko duten azpiegiturak sortzeko urratsak eman daitezela

Eskatzen dugu Bizkaiko Foru Aldundiak, Eskualdeko landa-garapenerako elkarteek edo lehen sektoreari lotutako bestelako erakundeek elkarren artean plan integral bat osa dezatela, ikastetxeen eskariari erantzuteko.

c) Ikastetxeetan behar diren azpiegiturak

Eskatzen dugu tokiko administrazioek (udalak, mankomunitateak...) aurreko guztia gauzatzeko behar diren egitura finkoak sortu eta udal eremuko giza baliabideak jar ditzatela.

Halaber, eta dagokion testuinguruan, Enkarterri-Meatzaldea eskualdeko sindikatu, alderdi politiko eta gizarte-eragile guztiei eskatzen diegu euren babesa eta atxikipena eman diezaiotela Adierazpen honi, guztion erantzukizuna delakoan eskualde osoko hurrek eskura izatea bertan eskatzen duguna.

Muskizen, 2019ko urtarrilaren 19an.

Angel Larena Eskola	La Baluga
Askartza Isusi	La Escontrilla
Buenos Aires	Mendia Eskola
Eduardo Eskartzaga	Mimetiz
El Casal	Muskizko Ikastola
Eretza	Otxartaga
Etorkizuna	P.Cantarrana Eskola
Kontxa Eskola	Turtziozko Eskola
La Arboleda	San Gabriel